

“Caritasek asko eman dit”

Ana Mari Manzidor Aristirentzat (Orio, 1938) uda ederra izan da. Batetik, Orioko arraunlarien lorpenak ospatzen aritu delako. Eta bestetik, herriak, uztailan egin zion omenaldiarengatik. “Erabat ezustean harrapatu ninduen”, dio Ana Marik. Bere anaia –duela bi urte hil zen Martxelo (Orio, 1941)– eta biok omendu zituzten.



“Nire anaia ezkongabea zen baina herriko haur guztiak hurbiltzen zitzaizkion, gozokiak –txikleak, sugusak...– ematen baitzizkien. Oso maitea zen. Ama askok esan izan didate, anaia itsasora abiatzen zen bakoitzean –arrantzalea zen– kostatzen zitzaizela haurrak negarrez hastean isilaraztea”.

Ana Marik urteak eman dizkio Caritasi. Berrogeita hamar baino gehiago. Lehengo mende erdian, estatubatuarrek, laguntza sozial eskaini zuten, adibidez, esnea eta gazta, bidaltzen hasi zirenean hasi zen bera Caritasean. “Orion sakristaua zen pertsona baten sotoan elikagaiak gorde, eta banatzen aritzen ginen premia gehien zuten familien artean. Garai hartan miseri handia zegoen”, gogoratzen du Ana Marik. Famili haietako seme-alabak zirenak, egun, begirune handia diote oriotarrari: “Sentitzen dut adeitasun hori”.

Caritasean egin zuen lanaz gain, Ana Marik, bere garaian etxean hartu eta hezi zituen lau haurrengatik jaso zuen omenaldia. Egin dezagun urteetan atzera. 34 urte hain zuzen ere. Emakume bati, haurrak kendu behar zizkiola erabaki zuen epaitegiak. Haurrak Kataluinako famili ezberdinetan banatzearen aurrean, Ana Marik, lau anai-

arrebak –hiru mutil eta neska bat: 13, 8, 7 eta 5 urtekoak– bere etxean hartuko zituela proposatu zuen. Baita egin ere. “Orduan, haur zaharrena, ia ez zen eskolara joaten baina nirekin hartu nituenean denak ikasketak egin zituzten”.



Ana Marik, haurrak etxean jaso izanagatik, “mila bider” entzun zituen inguruko harridurazko esamesak. Halere, ez zuen amore eman: “Erotuta nengoela, ez nekiela non sartu nintzen...” izan ziren besteak beste entzun behar izan zituenak. “Nik ahaleginak egingo nituela esaten nuen. Ez zitzaidan zuzena iruditzen gurasoengatik banandu, eta era berean anai-arrebak ere banatzea”.

Etxean hartu eta bizpahiru hilabetetara, haurretariko batek zera esan zion: “Ana, ba al dakizu etxe honetara etorri nintzenean, nire asmoa, zuri, inoiz kasurik ez egitea zela?”. Baina orain gauzak beste era batean ikusten ditut”. Eta gaur egun, haur haiek, jada, guraso dira, eta Ana Mari ‘amonde’ dute.

“Caritasek asko eman dit”, dio Ana Marik. “Jendearekin hartu-emana izateko oso lagungarria izan da niretzat. Nik, aldiz, ahal dudana eman diot trukean”, dio umil oriotarrak.